



## Hego Euskal Herriko 113 alkate bildu dira Tolosan EUDELen batzarrean

**ORDEZKARITZA** ▶ Tolosaldeko 15 alkatek hartu dute parte Musika Eskolan eginiko ohiko bilkuran

**GAIAK** ▶ Lurzoru eta Hirigintza legea eta Euskadiko Udal legearen aurreproiektua aurkeztu zituzten ▶ 3



Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDAL) Ohiko Batzarra. E. EZEIZA



## Paisaia lasaiak argazkietan irudikaturik, jubilatuen tabernan

**ALEGIA** ▶ Leitzarango, Urkizuko, Hondarribiko eta Zarauzko paisaiak aukeratu ditu Joseba Mercader tolosorrak, besteak beste. Loreak eta gorputzeko atalak ere ikusgai daude, hilabete honen 11ra bitarte. J. MERCADER ▶ 5

### IBARRA ▶

## Guridiko igogailuaren lanak hasi dituzte

2007ko aurrekontuak onartu dituzte ▶ 6

### LEITZA ▶

## Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdia

Riaño bertsolaria ariko da gaur ▶ 7

## hitza Harpidedunen txokoa

ARANZADI zientzi elkartearen eskutik **HITZA**ko harpidedunen artean liburua hauek eta 2007ko egutegia zozkatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



“Gizarte tradizionala **ZIZURKILEN** (1615-1800)”



“**TOLOSA** aro modernoan” (XV-XVII)

## GIZARTEA ▶



Goian, Afrikako emakumeak eta behean Indiako emakume talde bat ikasten. Ezkerrean, Indiako Gujarateko haurrak. HITZA

# Munduan barrena lanean

Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeak hamar urte daramatza Hego Amerika, Erdialdeko Amerika, Afrika eta Indiako herrialde ezberdinetan lanean

## ENERITZ MAIZ

**A**lboan, Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkar-  
tea da eta Araba, Bizkaia,  
Gipuzkoa eta Nafarroan egiten  
dute lan. Bi eginkizun nagusi  
ditu: garapenerako heziketa  
Euskal-Herrian; eskola, bolun-  
taritza, sentsibilizazioa mun-

duan... eta nazioarteko elkarla-  
na; proiektuak eta harremanak  
kanpoko elkarrekin. Bien ar-  
tean, presio politikoa gober-  
nuan, sare internazionallean  
eta mundu mailan egiteari ga-  
rrantzia ematen diote.

Jesusen lagundiaren ingu-  
ruan duela hamar urte sortuta-  
ko Gobernu Kanpoko Elkartea

da Alboan, eta urte hauetan  
guztietan leku askotara zabal-  
du dute beraien lana. Lau lan  
sektoretan banatuak dituzte  
beraien helburuak: hezkuntza,  
hiritartasunerako heziketa; ba-  
kea eta giza eskubideak; eko-  
nomia eta produkzioaren gara-  
pena eta azkena, demokrazian,  
baztertuen parte hartzea sus-

tatzea. Eta arlo hauetan guzti-  
tan generoaren parekotasuna  
bultzatzen saiatzen dira. Beste-  
tik, lau sektore hauez gain, Al-  
boanek, larrialdiei ere erantzut-  
ten die kanpoko elkarrekin es-  
katzen dutenean.

Hego Amerikan: batez ere,  
Peru, Venezuela eta Kolonbian  
daude baina Ekuadorren ere

ari dira lanean. Erdialdeko  
Amerikan: El Salvador, Nikara-  
gua, Honduras, Panama eta  
Guatemalan daude. Afrikan:  
Kongoko Errepublikak Demo-  
kratikoa, Burundi, Ruanda, Gi-  
nea, Liberia eta Mozambiken.  
Eta Asian: Indian eta Sri Lan-  
kan.

Garapenerako hezkuntzari  
garrantzi handia ematen diote.  
Eskoletako heziketa materialak  
lantzen dituzte eta horrez gain,  
eskoletara joaten dira nahiz  
eta, oraindik ez dagoen honi  
dagokion irakasgairik. Hala  
ere, ikastetxe asko daude sar-  
tuta.

Hamar urte hauetan, bazki-  
de sare garrantzitsua eta gizar-  
tearen babes handia lortu du  
Alboanek. Jendeak dirua ematen  
duela adierazi digu Miryam  
Artolak eta gehien ematen di-  
ren garaiak, larrialdiak gerta-  
tzen direnean izaten direla.

## Boluntarioen lana

Boluntarioen lana da aipatu  
gabe utzi ezin dena eta orain  
dela urte batzuk arte gazteak  
nagusi baziren ere, orain, gero  
eta 3. adineko jende gehiago  
animatzen da, behin jubilatuta  
ostean laguntzera. Alboanek,  
persona boluntarioak, be-  
raiek ari diren lanetan sartzea  
eta elkarren artean herritar  
parte-hartzaileak sortzea izat-  
en du helburu. Aholkuak eta  
prestakuntza lanak eskaintzen  
dikiete boluntario izan nahi  
dutenei eta baita, hegoaldeko  
erakundeetan esperientzia be-  
rriak bizitzeko erraztasunak  
eskaini ere.

Informazio gehiago eskuratu  
nahi izanez gero, [www.alboan.org](http://www.alboan.org) web orrian sartu beste-  
rik ez dago.

## MIRYAM ARTOLA ▶ NAZIOARTEKO ELKARLANEKO KOORDINATZAILEA

# «Boluntario lanetarako atek beti zabalik daude»

Miryam Artola tolosarrak hiru  
urte daramatza Alboan gober-  
nu kanpoko erakunde lanean.  
Hiru urte hauetan Indian  
barrena dabil lanean.

## Nolatan sartu zinen mundu honetan?

Mundu honetan sartzen garen  
guztiok izaten dugu atzetik da-  
karkigun zerbait, gaztetatik bo-  
luntario bezala ibiltzeko grina  
esaterako. Tolosako *Setem*-en  
hasi nintzen lanean, gero Gazte  
Kontseiluan eta jada oso garbi  
nuen mundu honetan egin nahi  
nuela lan eta hiru urtetarako  
Mexikora joan nintzen. Oso es-  
perientzia ona izan nuen baina  
bueltatzeako erabakia hartu  
nuen. Eta denbora gutxira, Al-

boanetik deitu zidaten bertan  
lanean hasteko.

## Zer da Alboanen egiten duzuna?

Hasieran, Asiako, Indiako eta  
Sri Lankako proiektuen ardu-  
radun bezala aritu nintzen. Eta  
orain dela urte betetik nazio-  
arteko elkarlaneko koordina-  
tzaile izendatu ninduten eta  
beste lekuetatik ibiltzeko au-  
kera eta erantzunkizuna dut.

## Nolakoak dira Indiaran egiten dituzun bidaiak?

Helburuaren araberakoak izat-  
en dira bidaiak, zehatzak dire-  
nean bi edo hiru asteoak izat-  
en dira, baina gehienak, hiru  
edo lau asteoak egiten ditu-  
gu. Martxan dauden proiektu-

ak ikusi, informazioa jaso  
eta eman, etorkizunean zer  
egin daitekeen aztertu; gu beti  
epe luzeko prozesuetan sar-  
tzen saiatzen gara. Niretzat bi-  
daiatzeko oso bide polita eta  
esanguratsua da, herri bat  
bertako jende jakin baten bi-  
tartzet ezagutzen duzu. Dau-  
den moduan daude eta egia  
da okerren bizi direnak direla,  
baina beste modu bat da herri  
bat ezagutzeko eta niri asko  
gustatzen zait.

## Zein harreman dituzue bertako jendearekin?

Elkarlanean ateratzen ditugu  
proiektuak aurrera eta guk ga-  
rrantzi handia ematen diogu  
harremanari. Harreman estua

da eta gainera elkarri egiten  
diogun konpainia da. Harre-  
man batean oinarritzen dugu  
gure prozesua. ez da bakarrik  
proiektua aurrera eramatea.

## Nola bizi dira?

Herri baztertuenetan bizi dira  
eta emakumea, gizona edo  
haurra izateak asko baldintza-  
tzen du. Baita hirian edota ne-  
kazal gunean bizi diren. Baz-  
terketa ekonomikoa dute eta  
honek sarritan bazterketa so-  
ziala ekartzen du. Beti esaten  
da baina egia da, pobreen ar-  
tean pobreenak, emakumeak  
dira Guatemala, India edo Bu-  
rundi. Esanguratsua da.

## Zu bezala ibili nahi duen batak zer egin behar du?

Atek beti zabalik daude. Nik  
uste dut motibazio eta eran-  
tzunkizun kontua dela. Guztiak  
gara mundu honen parte eta  
denok dugu erantzunkizuna.  
Obligazioz egitea ere ez dago  
ondo baina norbaitek sentitu-  
ko balu, Alboanez gain, Gipuz-  
koan gobernu kanpoko era-  
kunde asko daude. Gure ka-  
suan, egoitzetan lan egiteko  
aukeraz gain, aurretik eginda-  
ko formakuntza batekin urte-  
beterako joateko aukera es-  
kaintzen diegu. Aldiz, beste el-  
karte batzuk epe motzekoak  
eskaintzen dituzte, beraz, zure  
pentsamenduekin bat dato-  
rren elkarte batera gerturatzea  
litzateke. Boluntario izateak  
denbora eta dirua eskatzen du  
eta garbi eduki behar dena  
hiru hilabetetan ez duzula ezer  
egingo da. ◀

GIZARTEA ▶

# Euskadiko Udalen Elkarteak ohiko batzarra egin du

Euskadiko Udal legearen aurreproiektua aurkeztu zuten bertan, bai eta Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legea ere

ERREDAKZIOA

11:30ean hasi zen atzo Tolosako Gorosabel Zaharra eraiki-lean, Euskadiko Udalen Elkartearen urteroko Ohiko Batzarra. Bertan izan ziren Hego Euskal Herriko 113 alkate, horien artean, 15 Tolosaldekoak. Elkarte honen helburua Udalen interesak defendatzea da.

Karmelo Sainz de la Maza EUDELen elkarteburu eta Leioako alkateak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bertaruei egin zieten ongietorriaren ostean, oniritzia eman zioten 2006ko ekitaldiko likidazioari. Honez gain, EUDELen 2007ko aurrekontuak onartu zituzten aho batez. Gero, 2007rako planteatu ziren lege-gintzaldi-proiektu garrantzitsuenetako batzuk eztabaidatu eta aztertzeari ekin zioten.

Karmelo Sainz de la Maza Arrola EUDELen elkarteburu eta Leioako alkateak EUDELen Alkateen Batzarrari jakinarazi zion aste honetan bertan Gobernuak bi lege-aurreproiektu igorri dituela, eta «erabakigarriak izango direla gure herriko tokiko gobernuen etorkizunerako»: aspalditik itxarondako Euskadiko Udal Legearen aurreproiektua eta Gizarte Zerbitzuen Lege berriaren zirriborroa hain zuzen ere.

## Jorratutako gaiak

EUDELen elkarteburuak ondorengoa adierazi zuen atzoko batzarrean: «Euskadiko udalek heldutasuna lortu dute, eta ohiko erregimeneko udalena



EUDEL-eko elkarteburu eta elkarteburu ordeak batzarrean. HITZA



Hego Euskal Herriko 113 alkate bildu ziren denera. HITZA

baino handiagoa den sendotasun finantzarioa lortu dute. Baldintzatu gabeko finantzia-zioan, Espainiako udalek per

capita jasotzen duten euro bakoitzeko, Euskadiko udalek 2 edo 2,5 euro jasotzen dituzte batzaz beste.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

#### Sukaldaria eta zerbitzaria.

Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. Interesatuak deitu 615 78 90 06ra.

**Garbitzailea.** Garbiketara, sukalde, jangela eta eskoletarako. Kontakturako telefono zenbakia: 943 44 48 66.

**Gidaria.** Erakunde publikoetarako gidaria behar da. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da tabernarako. Asteleheneetik ostiralera, 15:30etik 22:30era,

larunbat goizetan lana eta igandeak jai. Telefona: 650 48 79 34.

### SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 186 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43ra.

### BESTEAK

**Zakurra.** Urtebeteko Cocker arrazako zakurra oparitzen dut. Telefona: 645 00 56 83.

PILOTA ▶

## Berria Txapelketako partidak bihar Beotibarren

NEREA URBIZU

Bihar IV. Berria Pilota Txapelketako norgehiagoka garrantzitsua jokatuko dituzte Tolosako Beotibar pilotalekuan. 16:30ean izango da lehenengo norgehiagoka, kadeteen mailakoa, alegia. Aurrera-Saiazekoei egokitu zaizkien aurkariak Irurtzungeok dira.

Aurrera-Saiazeko Urbietara eta Zinkunegi izango dira kadeteak; bigarren partidari, aldiz, jubenilak ariko dira; NARBATE eta Telletxea, eta azkenekoan, berriaz, Olaetxea eta Eneko Galarraga. Hasiera batean Renobales zen aurrelaria nagusien mailan jokatzeko ariko zena, baina gaixorik dagoenez, Olaetxea izango da jokatzeko.

Partida hau irabaziz gero, Berria Txapelketan aurrera egingo lukete, eta 3. kanporaketan sartu. Gogoratu, eskualdeetako bi pilota eskoletan ere aurrera egin zutela bigarren kanporaketan; bai Aurrerak, eta baita Zazpilturrik ere.

Aurrera-Saiazekoei Euskadiko Kluben Txapelketako finalerdi bat jokatu dute bihar, Urnietan. Kasu honetan, Onsalo ariko da Hernaniko seniorren kontra.

**ESKOLA ETA IKASTOLA EZBERDINETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DITUGU.**

- Euskera beharrezkoa da.
- Egunean 3-4 ordu.
- Kurrikuluma:

[rrh.urb@auzolagun.com](mailto:rrh.urb@auzolagun.com)

**PILOTA PARTIDUAK**

Martxoak 5 • Astelehena  
**16:30**

**Galarza V - Urberuaga**  
**Berasaluze IX - Elkoro**

MTZ. DE IRUJO - NALDA III  
**CHAFEE - BARRIOLA**

**Baleztena - Auxkin**  
**Apezetxea - Apeztegia**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren itxia.  
**Salgai (Tolosa).**  
Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).  
**Salgai (Tolosa).** lurre auzoan. Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal txikia. Oso modu onean.  
**Salgai (Tolosa).** Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.  
**Salgai.** Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa).**  
Garajeak. Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

'18/98 AUZIA' ▶

# «Erabaki politikoa izango da»

Etzi hasiko dira '18/98 auziko' inputatuen defentsak beraien konklusioekin

IMANOL GARCIA

18/98 auzia azken txanpan sartu da. Inputatuen defentsa eraman duten bokatuak beraien konklusioak irakurtzen hasiko dira etzi. Epaiaketa egunak astelehenetik asteazkenera badira ere, datorren astean ostiralera arte egongo dira 53 inputatuak —tartean eskualdeko Mikel Egibar, Nekane Txapartegi eta Joxe Mari Olarra—, ordurako agian epaiaren zain geldituko baita auzia. Eskualdeko inputatuek argi dute epaia «erabaki politikoa» izango dela.

Hasieratik ikusi dute epaiekaren «izaera politikoa». Txapartegik azaldu duenez, «bukarera iritsi gabe ere ziurra daukagu hor erabaki politikoa bat dagoela. PSOeren erabakien berri fiskalak eman digu. Ikusi dugu 16 hilabetetan egindakoa ez duela ezertarako balio. Erabakia epaiekatik kanpo hartuta dagoelako».

Olarrak egungo mementu politikoaren baitan kokatzen du erabakia: «Nik uste datozen bi hilabeteetan Euskal Herrira-



Eskualdeko inputatuek babesa jaso dute, Gurea aretoan egindako agerraldia, esaterako. NEREA URBIZU

ko aurrera begirako bidegurutze batean sartzen garela, aurrera edo atzera egitekoa. Zentzu horretan baikorra naiz prozesuarekiko. Baina PSOeri agian komeni zaio udal hauteskundeen aurretik erabakia ateratzea, PPrekiko demonstrazio bat emateko eta ordutan guk ordainduko dugula hori. Erabaki politikoa izango da eta bere ondorio guztiekin».

Fiskalak bere konklusioak plazaratu ditu eta eskaerak egiteko argudio nagusietako bat inputatuek «ETAren helburu berberak» izatea izan da. Horren aurrean, Txapartegik Jarrai-Haika-Segi auzia dakar gogora. «Ikusi genuen ez dela

talde armatuko kide izan behar, baizik eta bere helburuekin edo nolabait herri honen askatasunarekin bat egiteak bide ematen duela aurkako epaia izateko. Beti esan dugu militantzia politikoa egiteagatik epaituak eta espetxeratuak izango garela».

Olarrak, bere aldetik, gai honetan Garzon epailea du hizpide: «Bere garaian esaten zuen helburu batzuk daudela eta esaten duela dena ez dela berdina. Badirudi fiskalari komeni zaiola estutzea eta argudio berdinekin jarraitzen du, nahiz eta mundu guztiak jakin guztiz kontrakoa dela hori».

## Defentsaren argudioak

Eskualdeko hiru inputatuentzat bederatziko urte eskatu ditu Fiskaltzak. Defentsak zein argudio erabiliko dituen galdeztzen, orain arte egindakoa azpimarratuko duela dio Nekane Txapartegik, hau da, «lan politikoarengatik ari gaituztela epaizten eta berriro agerian

utziaraziko dute ez daudela frogarik horretarako. Gure kasuan, fiskalak bere zigor eskaerak egiteko torturapean lorturiko deklarazioak hartu dituela frogatzen eta hori bakarrik duela agerian jarriko dute».

Olarrak gaineratzen duenez, «defentsak banaka-banaka demostratuko du ez daukagula zerikusirik erakunde armaturarekin. Bakoitzak gure lan politikoa eman dugula eta beste batzuk lan enpresariala eman dutela. Gero, noski, beraien akusazio guztiak banaka-banaka behera botatu». Bestalde, fiskalak eta AVTko akusazio partikularraren jarrera salatu du: «16 hilabete hauetan badi-rudi ez direla egon. Hasieran esandako gauza berdina mantendu dituzte».

Inputatuek beraien artean izan duten giroa ere azpimarratu dute. «Denok bat eginda funtzionatu dugu», dio Olarrak, «eta nik hor asko ikasi dut». Bestalde, kanpoan jasantako babesa ere nabarmendu dute. «Benetan sentitu dugu babesa eta ez bakarrik ezker abertzaletik. Nik uste dut nahiko zabala izan dela eta babes guzti hori eskertzen dut benetan», esan du Olarrak.

ADUNA ▶

## Behi Bi's-en emanaldia Asvinenean

Behi Bi's taldeak umeentzako txotxongilo emanaldia eskainiko dute bihar Asvinenean. 17:30ean hasiko da ikuskizuna. Adunako industrialdean dago kokatuta Asvinenea arte eszenikoaren laborategia.

ANOETA ▶

## Ezinean eta Exum taldeen kontzertua

Ezinean eta Exum taldeek kontzertua emango dute gaur gauean Anoetako Gaztetxean. Emanaldia 23:00etan hasiko da.

LARRAUL ▶

## Aiztondo X. Pilota Topaketa gaur hasiko da

Aiztondo X. Pilota Topaketa lehen jardunaldia jokatuko dute gaur Larraulgo pilotalekuan. 16:00etan hasiko dira partidak eta Alkiza, Aduna, Larraul eta Zizurkil herrietako alebin eta benjamin mailako pilotariak hartuko dute parte.

VILLABONA ▶

## 'Kubo magikoa' filma bihar, Gurean

Villabonako Gurea aretoan haurrentzako zinema emango dute bihar. Emanaldia euskaraz izango da. Zinemazaleek Kubo magikoa izeneko filma ikusi ahalko dute. 17:00etan hasiko da filma eta hiru euro balioko ditu sarreak.

VILLABONA ▶

## Pultsulari gazteen arteko lehia Olaederran

Villabonako Olaederra kiroldegian Euskadiko Teknika Eskolarraren Txapelketa egingo dute 17:00etan hasita. Bertan hogeitau pultsulari gazte inguruk parte hartuko dute. Tartean eskualdeko Darena-Olaederra halterofilia taldeko txikienek ere parte hartuko dute lehian.

**Laskorain Ikastola**  
Laskorain Ikastola

zure sukera

www.laskorainikastola.net

**Kalitatezko heziketa euskalduna eta eleanitza**

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK**  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamuaño auzoa, 16 - 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**Irurako Ikastola**

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

**'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'**

San Migel, 5 • 20271 IRURRA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

**Keinu hizkuntza ikastaroa Tolosan**  
3 hilabetezko ikastaro intentsiboa (120 ordu)

Tolosaldeko eta Goierriko Pertsona Gorren elkarteak antolatuta

**Martxoaren 6an** hasi eta 2007ko **maiatzaren bukaerara** arte.

**Orduetgia:** 17:30etik 21:00etara (asteartea, asteazkena eta osteguna)

**Informazioa:** 943 67 03 81 / 666 63 71 58 (bulegoko orduetgia: 9:30 - 13:30)

**Oharra:** Lortzen den agiriak CNSEren (Madrid) balioztatzen du, zeinak Pertsona Gorren Euskal Federaioa barneratzen duen.

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA:**  
Otsailaren 26tik  
Martxoaren 9ra

**Matrikulazio Orduetgia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

# Argazkietan irudi lasaiak islaturik

Leitzarango eta Urkizuko paisaiak aukeratu ditu besteak beste, ikusteko

**NEREA URBIZU**

Hilabete batez, eta Tolosako Inauteriak tartean izan direla, Alegiko jubilatuen tabernan argazki erakusketa bat dago ikusgai nahiz salgai. Kasu honetan, Joseba Mercader tolosarrarena dira. Martxoaren 11 bitarte izango dira lan hauek bertan, asteartetik igandera bitarte, tabernak duen ordutegian zehar.

Joseba Mercaderrek Urkizuko, Leitzarango, Hondarribiko eta Zarauzko paisaiak erretratatu ditu erakusketa honetan: zeru ikusgarriak, arratsaldeak, ibaiak, mendiak... Denak ere, momentu bitxietan egindakoak, kolore eta paisai ederrek.

Horrez gain, gorputzeko atalak ere ikus daitezke kasu batzuetan: emakumearen sabela, nolabait ere, amatasuna adierazten, besteak beste. Hau, zuri beltzean egindakoa da. Izan ere, paisaiak berezko kolorearekin daude ikusgai, baina giza gorputzari egindakoak, tratatu egin ditu Mercaderrek.

Joseba Mercaderrek ez du argazki kamerarekin bakarrik abilezia erakutsi: jubilatuen tabernan margolan bat, triptiko bat ere jarri du salgai.

**Margolan abstrakto bat**

Margolan hau abstraktoa da, berez ez baita figuratiboa eta ez da erraza zer den jakiteko. Bi kolore bakarrik erabili ditu honetarako: zuria eta gorria. Horrez gain, material ezberdina ere erabili du: itsatsita diapositiba batzuk dauzka, batzuk ilunak ikusten direlarik, eta beste batzuk, berriz, gorriak. Triptikoa tamaina ederrekoa da, xafila bakoitza luzeran metro bat baino gehiagokoa, hain zuzen.

Hau da dagoen margolan bakarra: honek prezio zehatz bat



**Naturako paisaiak.** Goian, mendian lorturiko irudia. Beheran zeru ikusgarria. J. M.



**Triptikoa.** Margolan bat ere badago: diapositibekin eta margoarekin osatu du. J. MERCADER



**Gorputza.** Giza gorputzari dagozkion atalak ere erretratatu ditu: irudian, emakume baten sabela, zuri beltzean. J. MERCADER

**Haur hezkuntzako**  
enpresa batek lan poltsa osatzeko  
**hezitzaileak eta garbitzaileak behar ditu.**  
Curriculumak **tolosa 289** Posta Kutxara bidali

**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**  
2-16 urte bitarteko hezkuntza  
Villabona eta Zizurkilgo ikastola  
• Euskalduna eta eleanitza • Kalitatezko Hezkuntza  
• Esperientziaduna  
943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
943 69 20 58 (Txermin auzo • Villabona)  
943 69 12 75 (Elbarrena auzo • Zizurkil)  
billabona@ikastola.net

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**  
JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA  
Matrikulazio epea:  
Otsailaren 26tik  
Martxoaren 9ra  
Enriobe Ikastetxea.  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel.-faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**  
07.30etik aurrera  
SAMANIEGO IKASTETXEA  
D EREDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA  
Matrikula epea: OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra  
BARRIO GORDEZKO BIGARREN HEZKUNTZA  
• ZEREGIMEN IRAKASKUNTZAKO GELA  
• LAN HASTAPEN EGOKITUA  
• BATXILERGOAK  
Telefonoa: 943651063  
Posta elektronikoa: 012244aa@hezkuntza.net  
• HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)  
• LEHEN HEZKUNTZA


**hirukide**  
KALITATEZKO HEZKUNTZA  
Telefonoa: 943 69 37 33  
Posta elektronikoa: 012952aa@hezkuntza.net  
www.hirukide.org

**KALITATEZKO HEZKUNTZA**  
www.hirukide.org

IBARRA ▶ AURREKONTUAK

# Hasi dituzte Guridiko igogailuaren lanak

Legealdi honetako azken aurrekontuak onartzerakoan, «argi ikusi zen» Ibarra EA eta EAJ koalizioaren arteko haustura



Guridiko igogailuaren lanak Laurteko planaren barruan doazen lehenak izango dira. A. IMAZ

## ASIER IMAZ

2006. urteko aurrekontuetan Guridiko igogailuaren proiektua onartu zuten, baina orain dela aste gutxira arte ez dira hasi indusketak. Lanak lehenengo urtean onartutako diru partidaz egingo direla diote, besteak beste, Ibarra Udalak ple-noan onartutako 2007ko aurrekontuek.

11 metro inguru izango ditu igogailuak eta 5-6 metroko maldan izango du eragina. Guridiko Maisuaren kaletik gora

egiten hasi diren lan hauek jarraipena izango dute. Izan ere, lau fasetako proiektu baten lehen urratsa besterik ez baita. Irisgarritasun planaren barnean aurkitzen bada ere gaur egun igogailua, hasierako ideia eta «12.000 euro gutxi gora behera» kostatu zen estudioa planaren aurrekoak dira. Lau faseko proiektu hau edo «Laurteko planaren garapena, guztira milioi bat eurotik gorako proiektu bat izango da».

Honetaz gain, Gurutzeaga inguruan, Otarreagako eta Apa-

ttaerrekako irisgarritasuna hobetu nahian, egokitze lanak egingo dituzte.

Ibarran egin nahi diren aldaketekin jarraituz, Ezker Batuak eta EAJk aurrera ateratako aurrekontuetan, Hiri Antolamenduko Arauak biltzean dituen dokumentua amaitzeaz dagoela azaltzen da.

## Etxebizitzetarako lurrak

2006. urtean ere aurreikusiak zeuden lur zoruaren aldaketa ekarriko luketen arau berrien

## ARLOKAKO GASTUAK ▶

Kontzeptua	Kostua
Euskara	198.956 euro
Obra eta Zerbitzuak	1.123.300 euro
Kultura eta Gazteria	606.554 euro
Hezkuntza	347.042 euro
Kirolak	429.656 euro
Gizarte Zerbitzuak	785.261 euro

erredakzioa. Udalak dioenez, «Arauak onartzeko adostasunik ez da egon», baina hala eta guztiz ere, legealdiaren azken urtean «lan garrantzitsu» honenkin jarraituko duela azpimarratzen du.

Arau hauekin loturik, herri talde batek joan den urtean 900 firma inguru bildu zituen. Proiektua gelditu zedin eskatzea zuten helburu, baina horretaz gain, Ibarren beharrei egokitzeko arau berriak eskatu zituzten.

## EA-EAJ koalizioa hautsita

Udal Plenoak aurrera atera zuten 2007ko aurrekontuak urtarilean. Eusko Alkartasuna eta PSE-EEko bina zinegotziak, aurkako botoa eman zuten. 4 botu aurka beraz. Kontutan izanik Eusko Alderdi Jeltzaleak 3 zinegotzi dituela eta Alderdi Popularrak ordezkaririk ez zela, berdinketa lortzeko Ezker Batuak duen boto bakarraren beharra zeukan. Azken hauek EAJrekin elkartu zirenez, launakako berdinketa eman zen. Txelo Romeo, Ibarra alkatearen (EAJ) Kalitatezko Botoari esker ordea, aurrera atera zituzten aurrekontuak.

Plenoan gertatuak bestalde, Ibarra EAJ eta EAren arteko haustura agerian jarri zuen. Bi alderdi hauek, udal hauteskundeetara koalizioan aurkeztu ziren. Uzta herri plataformak ateratako 5 zinegotzietatik 2 hartu zituzten. Besteak PP, Ezker Batua eta PSE-EErentzat joan ziren. Gaur egun, Eusko Alkartasuna bi zinegotzi oposizioan dago eta Eusko Alderdi Jeltzaleak hirurekin alkatetza- ren jabe da.

LIZARTZA ▶

## Gaur bertso afaria Egaña eta Lizasorekin

Azken 14 urtetan bezala, urteroko bertso afaria egingo dute Txirrita elkarteak. Ohiturari jarraituz Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña izango dira bertsolariak. Herritar nahiz kanpotarrei deialdia luzatzen die antolatzaileek gaurkoan Lizartzara gerturatzeko. 60 lagun inguru espero dituzte elkartzea Txirritan. Afarira joan nahi duenak bertan azaltzea nahikoa izango du, lehenago ziurtatu nahi izan ez gero. Txirrita elkarte-koekin hitzegin beharko du- larik.

IBARRA ▶

## Festa Batzordearen bilkura

Ibarra Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, bartolometako jaien antolaketari ekin asmoz, martxoaren 6an, asteartean, 19:30ean Udal Pleno Aretoan egingo den Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

ALEGIA ▶

## Intxurreren lau partidak gaur izango dira

Intxurre futbol taldeko partidak gaur izango dira. Lurraldekoek Lasalleren aurka 16:00etan jokatuko dute Alegian. Jubenilek Usabalen jokatuko dute Amarozen kontra 12:15ean. Kadete-ek etxean Beti Ona taldea izango dute arerio 11:30ean. Neskek, berriz, 15:30ean Alzakoen aurka partida oso garrantzitsua jokatuko dute Egian. Aurreko asteburuan berriz ere partida guztiak irabazi zituzten Intxurrekoek.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

# Nafarroako Txapelketako finalerdia, gaur, Goizuetan

Diego Riaño leitzarraren txanda izango da gaur, eta Migel Mari Elosegirena, hurrengo larunbatean, Berriozarren



2006. urteko finalurrekoan Migel Mari Elosegi *Luze* bertsoa botatzen. J. ASTIBIA

DIEGO RIAÑO ▶ BERTSOLARIA

## «Gai umoretsuak eta tristeak gustatzen zaizkit bereziki»

**N. Garzia** ▶ Diego Riaño (Leitza, 1980) euskara 13 urterekin ikasi zuen arren, txikia zenetik gustuko izan ditu bertsoak. Aurreko urtean finalak gutxiagatik ihes egin zion, zortzi bertsolari pasa ziren finalera eta bera berderatzigarrena gelditu baitzen. Gaur, Goizuetan, Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartuko du, hirugarren aldiz.

### Noiz hasi zinen bertsoan?

Berandu hasi nintzen, duela hiruzpalau urte. Euskara ere berandu ikasi nuen 13 urterekin, baina bertsoak betidanik gustatu zaizkit eta ia ezer ulertu ez arren, txikia nintzela ere gustuko nituen.

### Bertsolari Txapelketa batean gozatu al daiteke, edo nerbioek ez dute uzten?

Gozatu gutxi egiten duzu, zerbait bai, baina lagunartean beti gehiago. Gehienbat afari bat egin ondoren gozaten dut.



J. ASTIBIA

### Aurten nola ikusten duzu zure burua?

Gehiagi ere ez naiz prestatu, baina lehengo urtean baino gehiago, bai.

### Eta orokorrean, zer maila da-goela iruditzen zaizu?

Denetatik dago, bertsolari onak eta ez hain onak. Gainera, eguna nola daukazu ere garrantzitsua da. Bertsolari on batek egun txar bat izan dezake, eta bertsolari txar batek, egun on bat. Horrek maila parekatu egiten du.

### Zer da mikrofono aurrean jartzen zarenean pentsatzen duzuna?

Mikrofonoaren aurrean nagoeanean kontzentratzen saiatzen naiz, eta horretarako jendearen isiltasuna oso garrantzitsua da, ni oso erraz oharkabetsua bainaiz.

### Zeln da gehien gustatzen zaizun neurria?

Hamarreko txikia.

### Ze galekin sentitzen zara erosoan?

Gai umoretsuak edo tristeak gustatzen zaizkit bereziki. Tarrean daudenak, berriz, ez ditut gustuko. ◀

### ERREDAKZIOA

Ohiturari eutsiz, udaberria usaitzearekin batera dator Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Ez du hutsik egin azken 28 urte hauetan eta hala ere gaztetzen ari da. Nafarroako Bertsosale Elkartearen arabera, «euskaraz sorturiko kultur jarduera jendetsuenetakoa da, bai parte-hartzaile, antolatzaile eta laguntzaileei dagokionez, bai eta entzule kopuruari dagokionez ere».

Gaur, Goizuetan 18:00etan udaletxean egingen den finalurrekoan Diego Riaño parte hartuko du, eta hurrengo larunbatean, berriz, Migel Mari Elosegi *Luzek*, Berriozarren. Diego Riaño gain, hauek izango dira gaur Goizuetan izanen dira bertsolariak: Julen Zelaia, Joxe Juan Zubieta *Etxabe*, Iñigo Ibarra, Jon Elizetxe eta Iñaki Aleman.

2007ko txapelketak ez du aldaketa handirik ekarriko, aurreko edizioen jarraipena izango baita. Bertsolarien jatorriari dagokionez, Leitzatik bi ordezkari parte hartuko dute: Migel Mari Elosegi *Luzek*, eta Diego Riaño. Bortziritetako bost ordezkari izanen dira, Baztangolau, Iruñerriko hiru, Araizko bi eta Malerrekako bat.

Txapelketa urtero antolatzeak, aurreko urteetan utzi zuten berriz parte hartzeko aukera eskaintzen die: iaz Iñigo Olaetxea izan zen, eta aurten Aritz Saragueta izan da txapelketara hurbildu dena. Alazne Untxalo iturendarra lehen aldiz ariko da txapelketan. Iaz 18 urtez azpiko Nafarroako txapelketa izan zen eta aurten sailkapen saioan aurrera egitea lortu du. Belaunaldi berri baten ordezkaria izango da. Eneko Lazkoz etxarriarrak ere, iaz huts egin ondoren, aurten sailkatzea lortu du.

Txapelketaren irudiak zortzi aulki huts ditu. Bertsosale Elkartearen arabera, «finalera begira dauden zortzi bertsolariak irudika ditzake, baina baita bertsolariaren sortze prozesuaren soiltasuna ere, elementu linguistikoa eta musikal soil batzuekin entzulea aulkitik altxaratzeko gaitasuna».

### Epaila taldea eta ariketak

Aurten ez da aldaketarik egongo epaila taldeari dagokionez. Jon Abril, Mikel Bujanda, Saioa Mitxelena, Gaizka Sarasola eta

Joxe Urroz izango dira epaileak. Ordezko epaile eta idazkari lanak, berriz, Ekintza Landak beteko ditu. Gai-jartzaile taldea eta aurkezleari dagokionez, orain arteko taldea izango da gai egiletzaren oinarri: Alaitz Rekondo, Miren Bidarte, Manu Legarra eta Nerea Bruño. Aurkezle lanak, berriz, Alaitz Rekondok egingo ditu.

Bertsolariek egin beharreko ariketak hauek dira: zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso; zortziko txikian binaka ofizioka hiruna bertso; hamarreko txikian binaka ofizioka hiruna bertso. Eta azkenik, kartzela: puntua emanda bi bertso zortziko txikian eta gai bati bi bertso jarri.

### Zergatik antolatu urtero

Txapelketa urtero antolatzen baldin bada, Bertsosale Elkartetik «txapelketaren beharra» ikusten dutelako da. Ideia honetan oinarrituta, hiru helburu dituzte: batetik, Nafarroan bertsolaritza sustatu eta ezagutaraztea, bertsosalea den eskualdeetan sustatu eta hain ezaguna ez denetan ezagutaraztea. Bestetik, Nafarroako bertsolariak motibatu eta sustatzea. Ez da ahaztu behar Nafarroan urtean 140ren bat bertso saio ospatzen direla eta horietako askotan ez da bertako bertsolaririk aritzen. Eta azkenik, Nafarroako bertsolaritzaren eragileak hartu-emanetan jartzea. Nafarroako bertsolaritzaren inguruan lanean dabiltzan bertsolari, gai-egile, aurkezle, antolatzaile eta zaleak elkartzeko gunea da txapelketa eta iritziak trukatu, asmo berriak hausnartu eta elkarren berri izateko aukera eskaintzen du.

### 'Bertsoberriz' zikloa

Txapelketak *Bertsoberriz* zikloari hasiera emango dio. «Bertsoberriz zikloak Nafarroako udal, kultur batzorde, elkarte eta taldeekin elkarlanean txapelketari jartzen dizkiogun helburuak urte osoan barna lantzeko tresna izan nahi du: Nafarroako bertsolaritza sustatu eta ezagutarazi». Ziklo honi Berriozar eta Iruñeko saioekin emango zaio hasiera.

Gaur Goizuetan egingen den finalurrekoaren ondoren, Berriozarren izanen da beste finalerdia, hurrengo larunbatean. Bertan, ondorengo bertsolariak izanen dira: Xabier Silveira, Erika Lagoma, Migel Mari Elosegi *Luze*, Oskar Estanga, Aritz Saragueta eta Alazne Untxalo. Musika eskolan egingen dute. 18:00etatik aurrera. Finala Elizondoren izanen da, martxoaren 24ean.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Roseland taldeak *Las mil y una noches* antzerkia eskainiko du Leidor aretoan 17:00etan.  
**Tolosa.** Diskoiaia 21:00etan Beotibarren. Sarrera doan. Tolosaldea Busek gaueko zerbitzua jarriko du.  
**Tolosa.** Eko4 eta Bide Bat musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.  
**Tolosa.** Zuhaitz Eguna ospatzeko jokoak, tailerrak eta zuhaitz landaketa egingo dute Laskorain Ikastolako LH 5-6. mailako ikasleen Usabal kiroldegian inguruan.  
**Tolosa.** Laskoraingo matrikulazio kanpainaren barnean otsailaren 26an 2 urteko gurasoentzat eman zen hitzaldiaren dokumentazioa lortu nahi dutenak, harremanetan jar daitezela 943 697122 zenbakian edo tolosa@ikastola.net helbidean. DBHko guraso berrientzat eginiko bilera irekian eman zen azalpenaren berri jaso daiteke.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El ilusionista* filma Leidor zineman, 19:30ean eta 22:30ean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldearen argazki erakusketa Kultur Etxean bihar arte: 17:30etik 20:30era. Gaur 10:00etatik 13:00etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Irurtzun.** Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
**Tolosa.** Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Musikenekoen kontzertua**  
**Musika Eskolan**

**TOLOSA ▶** Datorren astelehenean, martxoaren 5ean, 19:00etatik aurrera, Eduardo Mocoora Musika Eskolako areto nagusian, Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiko akordeoi taldeak kontzertua eskainiko du. Talde honen partarideak hauek dira: Cristina Cortina (Andorra), Naiara Garai (Bermeo), Marina Hernández (Hondarribia), Saira Korhonen (Finlandia), Nerea Pérez (Irun) eta Leire Telletxea (Bera). Emango duten egitarauaren baitan, era guztietako obrak interpretatuko dituzte musikariek. HITZA

**AGURRAK ▶**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tartea



**ZORIONAK**

Ugaitz Goikoetxea Altuna (Alegia). Gaur 2 urte. Gure indio bikixari muxu handi bat aita eta amaren partetik.

**berriaren eskutik**



**txandalak**



Neurria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

**36€**

Egin eskaria amaitu baino lehen  
**943 304 345**  
 edo harpidedunek  
[www.berria.info](http://www.berria.info)

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

OHARRA: biltegiokoak bukatu arteko eskaintza



**URTE ASKOAN**  
 Amaia Otamendi Alkorta (Abaltzisketa). Gaur 8 urte. 8 muxu handi familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Kattalin eta Sara (Baliarrain). Gaur eta etzi urtebaxa. Zorionak eta muxuak. Ondo pasa!